

Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

nazioarteko eredu estatistiko berrien analisia

eta Euskadiko ziklo estatistiko
kulturalaren proposamena



KEBren esparru
estatistikoaren berrikuspena





nazioarteko eredu estatistiko berrien analisisa

eta Euskadiko ziklo estatistiko
kulturalaren proposamena

Aurkezpena

1. Europar Batasunaren eta UNESCOren aldaketa nagusiak

1.1. Europar Batasuna

1.2. UNESCO

1.3. Laburpen gisa

2. Estatistika kulturalen erronka berriak

2.1. Sormen-industriak

2.2. Kontsumitzetik parte hartzera

2.3. ICTen eragina

2.4. Eraginkortasuna bilatzea

2.5. Testuinguruari egokitutako ezagutza

3. KEBren esparru estatistikoaren balantzea

4. Esparru eta ziklo estatistiko berria

4.1. Informazio-sistemaren betekizunak

4.2. Kontzeptuen egitura

4.3. Informazio-sistemaren tresnak

Eranskinak



Aurkezpena

KEBek hasiera-hasieratik bereizgarri izan duen hausnarketa-lanari eutsi nahi dio; alegia, egungo esparru estatistikoa baloratu nahi du, eta lan estatistikoak aurrez aurre dituen aldaketak eta erronka berriak zehaztu, euskal kulturaren egoerari buruzko ezagutza sortzeko erreferente izaten jarraitzeko.

Nahi hori abiapuntu hartuta, Behatokia sortzeko erreferente izan ziren esparru estatistikoek eta kontzeptualek izan duten bilakaerari buruzko analisia egin zen 2014an. Aldatu diren alderdiak eta aldatu ez direnak zehaztu ziren eta, horiek abiapuntu hartuta, estatistika kulturelek gaur egun aurrez aurre dituzten erronka nagusiei buruzko hausnarketak proposatu dira.

Txosten honen helburua KEBren esparru estatistikoa berrikustea eta ziklo estatistiko eguneratu bat proposatzea da.

1. eta 2. kapituluetan, Europar Batasunak zein UNESCOk beren eredu estatistikoetan txertatu dituzten aldaketak laburbildu dira. 2014an egindako analisian, beste erreferente batzuk aztertu ziren (Quebec, Frantzia, Espainia, Katalunia); nolana ere, gainerakoentzat eredugarri diren bi erakundeak hautatu dira azkenik.

3. eta 4. kapituluetan, Behatokiak egindako lan estatistikoaren balantzea egin da, eta bere esparru berrirako planteamendu eguneratu bat proposatu, nazioarteko erakundeek markatzen dituzten planteamenduen ondorioz, batetik, eta 2007az geroztik pilatutako esperientziaren ondorioz, bestetik.



1. Europar Batasunaren eta UNESCOren aldaketa nagusiak



1.1. Europar Batasuna

Azken urteetan, Europako eredu estatistiko kultural baterako oinarriak zehazteko borondatea agertu du Europar Batasunak; hartara, errealitatea ezagutzeko eta sektore kulturala sustatzeko politikak definitzeko laguntza emateko estatuei. Horren ildotik, estatistika kulturaleri buruzko lantalde bat sortu zen 1997an: LEG-Culture (Leadership Group sur les statistiques culturelles). Urrats horren ondoren, 2007an, **Eurostat**ek, Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak, estatistika kulturaleri buruzko lanari heldu zion berriro, eta lehen **Cultural statistics in Europe Pocketbook** argitaratu zuen. 2011n, horren **bigarren edizioa** argitaratu zuen.

Nolanahi ere, gaur egun, estatistika kulturalak garatzeko Europako aktore nagusiak Europar Batasuneko estatuak dira eta, ondorioz, antolaketa, metodoak eta edukiak oso bestelakoak dira. Estatistika kulturalen garapen-maila ere oso bestelakoa da herrialde batetik bestera, edukiei, metodoei, aldizkakotasunari, sektore-estaldurari zein erabilitako iturriei dagokienez.

Europar Batasuneko Kultura Ministroen Kontseiluak 2007ko amaieran zehaztu zuenez, estatistika kulturalak hobetzea eta konparagarri egitea 2008-2010 aldirako kulturarako lan-planeko lehentasunezko bost arloetako bat izan zen. 2009ko irailean, estatistika kulturaleri buruzko Europako beste lantalde bat sortu zen, Eurostaten ekimenez: *European Statistical System Network on Culture* (ESSnet-Culture). Luxenburgoko Kultura Ministerioak koordinatu zuen sarea, eta mandatu hau izan zuen: datuen ekoizpena garatzea, sistema estatistiko koordinatu bat oinarri hartuta, eta orduko metodoak egokitzeko edo garatzeko aukera aztertzea, behar berriei erantzuteko eta arlo berriak estaltzeko. Hauek izan ziren ESSnet-Culturaren helburu nagusiak:

- Europako estatuen arteko estatistikaren arloko lankidetzari berrekitea eta LEG-Culturek sortutako estatistika kulturalaren Europako esparrua berrikustea.
- Orduko oinarri metodologikoak hobetzea, Europako estatistiken kultura berri bat garatzeko.
- Adierazle eta aldagaiak zehaztea, sektore kultural konplexua deskribatu eta aztertu ahal izateko.
- Esperientzia nazional bat ematea, esperientzia handiago bat lortzeko eta datuen analisi aurreratu gehiago egiteko.

ESSnet-Culture 4 lantaldetan antolatu zen (tasks force):

1. **Esparrua eta definizioak**
2. **Finantzaketa eta gastua**
3. **Kultura Industriak**
4. **Kultura Praktikak eta kulturaren alderdi sozialak**

ESSnet-Culturek proposatzen duen estatistika kulturalen Europako esparruak arlo kulturalaren kontzeptua du oinarri; hots, artistikotzat jotako adierazpen-sorta baten inguruan zentratutako praktika, jarduera edo kultura produktuen multzoa.

ESSnet-Culture egindako lana amaierako txostenean dago jasota (2012an argitaratu zen). Txosten horretan kontsulta daitezke deskribatutako lehentasunezko lau lan-eremuetako bakoitzari buruzko kontzeptuak, definizioa, adierazleak eta gomendioak.

Hala eta guztiz ere, Europako hainbat erakundek ahaleginak egin badituzte ere, zaila da sormen sektorei buruzko datuak bateratzea Europa-mailan; izan ere, adierazi bezala, estatuak ematen dituzte erabil daitezkeen datu gehienak eta, ondorioz, oso zaila da konparatzea.

Honela egituratzen da ESSnet-Culturek proposatzen duen ereduak:

Arlo kulturalak	Funtzio kulturalak	Dimentsioak
1. Ondarea	1. Sorkuntza	1. Ekonomia
2. Artxiboak	2. Produkzioa eta edizioa	2. Enplegua
3. Liburutegiak	3. Hedapena eta merkataritza	3. Kontsumoa
4. Liburuak eta prentsa	4. Babestea	4. Finantzaketa
5. Arte eszenikoak	5. Hezkuntza	5. Praktikak eta parte-hartze soziala
6. Ikusizko arteak	6. Kudeaketa / erregulazioa	
7. Arkitektura		
8. Ikus-entzunezkoak eta multimedia		
9. Publizitatea		
10. Artisautza		

Oharra: gorri daudenak eredu honen berritasunak dira.



Botere publikoek informazio estatistikoa aztertzeke beharra dute eta, behar horri erantzunez, ESSnet-Culturek adierazle ekonomikoen (enpresak, enplegua, material kulturalaren inportazio eta esportazioa) eta sektore kulturalako IKTei lotutako beste batzuen taula bat osatu du.

- Sektorearen hedapena (kulturalizat jotako arloak barneratzen ditu) eta sakontasuna (aktore eta artistek lan egiteko ezinbestekotzat dituzten aktore, artista, laguntzaile eta produktuak barneratzen ditu).
- Zuzenean neurtzeko sistema batera igarotzeko nahia.
- Nazioarteko konparaziozko ebaluazioak egiteko gaitasuna.

Xede estatistikoetarako kulturaren definizioak, Kultura Estatistiken Esparruan jasotakoak, bi alderdi nagusiri erreparatzen die:

1.2. UNESCO

UNESCOk *Estatistika kulturaletarako esparrua* egin zuen 1986an. Informazio kulturala nazioartean estandarizatzeko egin zuen, bai eta zer alderdiri buruzko informazioa zen jakiteko eta informazio horrek hutsuneak eta aukerak atzemateko erreferentzia-puntu baliagarriak ematen zuen ikusteko ere. Kritikatu egin bazuten ere, zenbait herrialdek beren sistema estatistikoak garatzeko erreferentzia modura erabili dute. Esate baterako, Kanadak, Australiak, Zeelanda Berriak eta Europako zenbait herrialdek, baita Europar Batasuneko estatistiken proiektuak ere.

UNESCOren Estatistika Erakundeak berak *Kulturari buruzko munduko txostenean* adierazi zuenez, 1986an egindako Esparrua errealitate berrietara egokitu beharra zegoen; hori dela eta, lehen Esparrua egin eta 23 urte geroago, UNESCOk, kultura garatzen ari den elementu bat dela ulertuta, gizarteek izan dituzten aldaketetara egokitu nahi du informazio kulturala.

UNESCOren Estatistika Kulturalen Esparrua ren 2009ko bertsioa lankidetzan egin zuten UNESCOren Estatistika Institutuak eta UNESCOren Kultura Sektoreak. UNESCOren estatistika kulturalen metodologiaren bertsio berrikusia da, 1986ko Estatistika kulturalen esparruaren bertsioan oinarritutakoa. Bertsio horrek harrezkero kulturaren eremuan sortu diren kontzeptuak barneratzen ditu; esate baterako, hauek: teknologia berriak, ondare immateriala eta etengabe eboluzionatzen ari diren praktika eta kultura politikak.

UNESCOk 2009an egin zuen esparruaren berrikuspenak jarraitzen zuen logikak funtsezko hiru alderdi zituen oinarri:

■ «Arlo kulturala» kontzeptua: arlo kulturalaren hasierako definizio batek zenbait industria har ditzake aintzat (kultura industria izenez ezagutzen direnak), gaur egun erabiltzen diren nazioarteko sailkapenetan formalki definituta baitaude. Era berean, arloak kultura jarduera osoa har dezake, kategoria jakin baten barruan, jarduera sozialak eta informalak barne. Esate baterako, ekoizpen zinematografikoari buruzko estatistikek zinetetara bertaratzea eta filmen ekoizpen komertziala barne har ditzakete, baina baita etxeko ekoizpena eta erakusketa ere. Mota horretako jarduera sozial eta informalak definitzea zailagoa da gaur egungo tresna estatistikoak erabilia; beraz, beste metodologia bat erabili behar da. Esparruaren ikuspegitik, arlo batek elkarri lotutako jarduera guztiak hartzen ditu barnean, horien izaera ekonomikoa eta soziala izanik.

■ Sormenezko-Kulturazko eztabaida: herrialde askok «sormenezko» terminoa baliatu dute industria horiek deskribatzeko, baina baliteke «sormenezko» sektorearen barruko enpresa asko halakoak ez izatea. Sormenaren kontzeptuaren definizioa eta neurketa bera eztabaida biziko gaia da. Sormeneko industrien ohikoak baino arlo artistiko zabalagoak hartzen dituzte beren barnean; esate baterako, IKT industriak edo ikerketa eta garapeneko industriak ere biltzen dituzte. Esparruak arazo horri heldu dio, eta zenbait sormenezko industria (diseinua eta publizitatea) arlo bereizi batean sartu ditu.

UNESCOren Kultura Estatistiken Esparruaren metodologia-proposamenak kulturaren eremuak aztertzeke orduan egin behar diren sailkapen, nomenklatura eta hurbilpenei buruzko zenbait gomendio ematen ditu. UNESCOk proposatzen duen nazioarteko kodifikazio-kodeen xehetasunak **UNESCOren 2009ko Kultura Estatistiken Esparrua** txostenean jasotzen dira.



2009ko Kultura Estatistiken Esparruak erronka bat du aurrez aurre; hots, ikuspegi bat sortu behar du kultura politiken bereizgarri diren oposizio eta dikotomietatik harago –bereziki, kultura nola neurtzeari buruzkoetatik harago–, bai eta politika kulturalen hiru dikotomiak sortutako tentsioari heldu ere:

- Kulturaren irismena (ekonomiko-soziala). Ekoizpenean eta sorkuntzan zentratutako ikuspegia gainditzeko.
- Administrazio-erregimena (publikoa-pribatua). Finantzaketa-iturriak bereizteko.
- Instituzionalizazio-maila (formala-informala) Eremu informaletan sortutako kultura ere aintzat hartzeko.

Honela egituratzen da proposatzen duen eredu:

Arlo kulturalak	Zeharkako arloak	Lotutako arloak	Ziklo kulturalaren etapak
1. Ondare kulturala eta naturala	1. Hezkuntza eta gaikuntza	1. Turismoa: kultura, espiritual eta ekologia	1. Sorkuntza
2. Aurkezpen artistikoak eta festak	2. Artxibistika eta babestea	2. Turismoari lotutako jarduerak	2. Ekoizpena
3. Ikusizko arteak eta artisautza	3. Ekipamendua eta laguntza-materialak	2. Kirolak eta jolasa	3. Hedapena
4. Liburuak eta prentsa			4. Erakusketa / harrera / transmisioa
5. Ikus-entzunezko medioak eta interaktiboak			5. Kontsumoa / parte-hartzea
6. Diseinua eta sormenezko zerbitzuak			
7. Ondare kultural immateriala (zeharkako arloa)			

Oharra: gorriz daudenak eredu honen beritasunak dira.

1.3. Laburpen gisa

- Kultura Estatistiken Esparrua definitzerakoan gero eta gehiago azaleratzen diren kezketako bat adierazle ekonomikoen garapena da (enpresak, enplegua, inportazioa, esportazioa, BPGari ekarpena, eta abar).

- Bi modutara lor daitezke estatistika eta adierazle kulturalak egiteko datuak: alde batetik, eragiketa estatistiko propioak sistematikoki egitea eta, beste aldetik, direktorioak eta bigarren mailako iturriak erabiltzea.

- Kontsumoari buruzko ikuspegi klasikoa alde batera utzita, kultura parte hartzea aztertzeak gero eta hausnarketa eta proposamen gehiago egiten ditu. Hala frogatzen dute bai Europar Batasunak planteatutako ICT ereduaren proposamenak, bai Eurostaten parte-hartze kulturalako adierazle konposatuak.

- Azken urteetan, sormenezko sektore berriak sartu dira aztertutako esparru estatistikoetan, aztertutako zenbait eredutan:

- Europar Batasunak publizitatea barne hartu du.
- UNESCOk ikus-entzunezko medioak eta interaktiboak, eta diseinua eta sormenezko zerbitzuak hartu ditu barne.

- Aztertutako zenbait kasu zeharkako arloak sartu nahi dituzte esparru estatistikoan:

- Europar Batasunak zeharkako arlo hauek proposatzen ditu: ekonomia, enplegua, kontsumoa, finantzaketa eta praktika eta parte-hartze soziala. EBren kasuan, gainera, funtzio kultural klasikoek gainera, hezkuntza eta kudeaketa / erregulazioa gehitu dira.
- UNESCOk hiru zeharkako arlo proposatzen ditu esparru berrian: hezkuntza eta parte-hartzea, artxibistika eta babestea eta ekipamendua eta laguntza-materialak.



2. Estatistika kulturalen erronka berriak

Sistema estatistikoek ez dute errealitate kultural estatiko bat deskribatu nahi, dinamiko bat baizik, irudikatu behar duten testuinguru aldakorraren arabera. Eta errealitate kulturalaren bereizgarri dira, batetik, aldaketa horiek zeinen azkar gertatzen diren eta, bestetik, bizi dugun eraldaketan tamaina.

Informazio estatistikoko sistema bat planteatzerakoan, zenbait gai hartu behar dira kontuan halabeharrez gaur egun; alegia, inguru digitala eta horrek ekoizpenean, sarbidean eta erabilera kultural berrietan duen eragina; azken urteetan bizitako krisia; eta sormen-industriak eszena kultural tradizionalan bat-batean sartzea.




2.1. Sormen-industria

Industria kulturalen definizioa eta kulturaren eta sormenaren arteko mugaketa; horra hor gaur egun eztabaida teoriko gehien eragiten duen beste alderdi bat. Joko-eremua industria kultural klasikoetatik sormeneko sektoreetara zabaltzeko joera indarra hartzen ari da, eta eztabaida piztu du kulturako eta sormenezko gaien artean. Horrela bada, UNESCOk berak haxe adierazi du 2009an bere esparrua berrikustean: «herrialde ugari industria horiek deskribatzeko «sormenezko» hitza erabili badute ere, baliteke «sortzaileen» sektoreko enpresa asko ez izatea halako. Sormenaren kontzeptuaren definizioa eta neurketa bera eztabaida biziko gaia da. Sormeneko industrietan ohikoak baino arlo artistiko zabalagoak hartzen dituzte beren baitan; esate baterako, IKT industria edo ikerketa eta garapeneko industria ere biltzen dituzte».

KEA aholkularitza-enpresak proposatu zuen zirkulu zentrokideen ereduak makrosektore bat deskribatzen du, eta horretan eremu hauek sartzen dira: arteen eta ondareen nukleoa; liburu, musika, zinema eta bideo, irrati-telebista, bideo-joko eta prentsaren kultura-industria; sormen-industria (diseinua, arkitektura eta publizitatea), eta kultura industrietan balioa ematen dieten beste sektore edo loturiko industria.

1. irudia: Sektore kulturalen eta sormeneko mugaketa



Iturria:
KEA-European Affairs (2006)

Honi buruzko bibliografia ugaria eta askotarikoa da; baina, benetan, estatistika kulturalen kasu zehatzean, sektore berriak (diseinua eta publizitatea) sartzea izan da aldaketa nagusia.

Illo horretatik, Erresuma Batua izan da sormen-industria kontzeptua erabili duten herrialde aitzindarietako bat, eta berriazko pisua eman dio; hots, publikoki babestu ez ezik, aztertu ere egin du. 1990eko hamarkadan, erakunde publiko britainiarrak sormen-industria mapifikatzen hasi ziren. 1998an argitaratu zen sormen-industrien lehen mapa. Lehen aldiz aztertu zen zehatz-mehatz, bada, sormeneko jarduerak zer ekarpen egiten dioten herrialdearen osasun ekonomiko orokorrari. Sormen-industria mapifikatzeaz gain, Erresuma Batuko Kultura, Hedabide eta Kirol Ministerioak estatistika bat egiten du erregulariki (**Creative Industries Economic Estimates**), balio gehigarri gordina, enplegua eta sormen-industria osatzen dituzten enpresen kopurua aztertzeko. Sektore hauei erreparatzen diete estatistikek: publizitatea eta marketina; arkitektura; artisautza; produktu- eta moda-diseinua eta diseinu grafikoa; zinema, telebista, bideoa eta argazkia; informazioaren teknologia, softwarea eta informatika-zerbitzua; edizioa; museoak, galeriak eta liburu-dendak; musika, arte eszenikoak eta ikusizkoak. Erresuma Batuan industrietan jartzen du nagusiki arreta, bada.

Beste muturrean Frantzia eta DEPSen lan estatistikoa dago; izan ere, sektore kultural klasikoetan jartzen du arreta oraindik ere, dela sektorekako estatistiketan, dela kulturaren eragin ekonomikoari buruzko azterlanak egiteko.

Oro har, kultura- eta sormen-industrien (KSI) definizioa, bertan sektore batzuk sartuta edo kanpoan utzita, haiei politika batzuen edo besteen bitartez heltzeko borondatearen mende dago batik bat, hala bilatzen dituzten helburuei erantzun diezaieten. Hori horrela, Erresuma Batuko eta Frantziako esparru estatistikoek batek zein besteak garatzen dituen politiken logikei erantzun baino ez dute egiten.

Tarteko puntuan dago ESSnet-Culturek garatutako Europako esparru estatistikoa. Europar Batasunak hartutako KSlen definizioa Europako Batzordeak 2010ean onetsitako **Kultura- eta sormen- industrien liburu berdean** jasota dago: «Kultura material gisa erabiltzen dutenak eta dimentsio kulturala dutenak, beren ekoizpena batez ere funtzionala izan arren. Horien artean, arkitektura eta diseinua sartzen dira, sormenezko elementuak txertatzen baitituzte prozesu zabalagoetan, baita diseinuaren, modaren edo publizitatearen tankerako azpisektoreak ere».



Gainera, UNESCOk ere tokia hartu du sortzaile-kultura eztabaidan. Hala, sormen-industriek arlo artistiko tradizionalak baino arlo gehiago hartu ohi dituztenez eta, esate baterako, IKT industria eta ikerketa- eta garapen-industria guztiak hartzen dituztenez, UNESCOren esparru estatistikoak arlo bereizi batean sartu ditu zenbait sormen-industria (diseinua eta publizitatea).

Beraz, hainbat jarrera har daitezke KSlel dagokienez, analisi estatistikoaren ikuspegitik, sorburu duten esparru teorikoaren arabera. Aukera guztiak dira onak; betiere, esparru estatistikoa koherentea bada herrialdearen edo eskualdearen errealitate kultural eta ekonomikoarekin, eta estrategia politikoen helburuei erantzuten badie.

Nolanahi ere, argi dago estatistiken diseinu kontzeptuarean sartu behar direla, erreferentziako ereduaren gomendioaren arabera (UNESCO eta Europar Batasuna). Beste gauza bat da KSlen eremu eta sektore jakin batzuei buruzko informazioa sortzeko bideragarritasun instrumentala.

2.2. Kontsumitzetik parte hartzera

Kontsumo kulturalaren analisia estatistika kulturalak egiten dituzten behatokiak eta erakundearen kezka bilakatu da. Gaur egungo gizartean, aldaketa azkarrak gertatzen dira eta, ondorioz, kontsumitzeko eta kulturaren parte hartzeko ohiturak etengabe eboluzionatzen ari dira, teknologiaren eraginez nagusiki.

Baina, teknologiaren eraginez ohiturak eta praktika kulturalak aldatzea ez da soilik egungo gizartearen berezko zerbait. Izan ere, XX. mendean, irratia jendarteratzearekin eta, aurrerago, telebista jendarteratzearekin batera, kultura kontsumitzeko era berriak agertu ziren. Dena dela, IKTe eta, batez ere, Internetek aldaketak eragin zituzte jendarteratu zirenetik, baina, gainera, teknologiak gero eta

aukera gehiago eskaintzen ditu, eta kontsumo eta ohitura kulturalen era berriak sortzen ditu etengabe. Izan ere, Internetek espazio berriak ireki dizkie artista profesionalari eta zaleei, bai eta rol klasikoak eraldatu ere (sortzailea - publikoa). Gainera, kultura garatzeko eskaintzen dituen espazio berriak globalagoak eta askoz ere lehiakorragoak dira, eta esparru digitalean garatzeko aukera berriak eskaintzen dituzte.

Nolanahi ere, IKTak kontsumo kulturalari buruzko hurbilketa estatistikoak birplanteatzeko arrazoiak bat dira, baina ez bakarrik. Kontsumo kulturalaren kontzeptuak ideia zabalago bat iradokitzen du gero eta sarriagotan: «parte-hartze kulturala». Praktika amateurak eta elkarte kulturalak parte-hartzea aintzat hartu izan dira praktika kulturalari buruzko estatistika askotan, baina parte-hartzearen kontzeptua gero eta zabalagoa da. Oso onartuta dago parte-hartze kulturala aztertzeko ez dela nahikoa museo eta antzokietara zenbat jende joan den edo zenbat liburu irakurri diren jakitea, baina errealitatea oso konplexua da eta zaila da irudi zorrotza emango duten esparru estatistikoak definitzea.

Zer jarduera hartu behar diren aintzat zehaztea da erronka; izan ere, jarduera berriak agertzen dira etengabe eta lehen baino sarriago, eta jarduera kulturalak erakunde eta agente kultural tradizionalak kanpo eraten dira. Ildo horretatik, ESSnet-Culturek, praktika kulturalari eta kulturaren alderdi sozialei buruzko lantaldeak egindako lanaren bitartez (*task force*), ICT ereduak (*Information, Communication and community, Enjoyment and expression, Transaction*) erabiltzea proposatzen du. Aurreko esparruak «museo, zinema eta antzokietara egindako bisitei» eta «irakurritako liburuei» erreparatzen zien. Esparru berriaren arabera, aldiz, Europa mailako eragiketarak egingo dira, praktika kulturalari buruzko ikuspegi zabalagoarekin, IKTak ere barne hartuta.

ICT ereduak, bada, praktika kulturalak aztertzeko erabili izan diren jarduerak gaintu nahi ditu, eta bisitei, ohiturei eta praktika amateurrei lotutako jarduera guztiak ere barne hartzen ditu. Baina oso eredu konplexua da metodologiari dagokionez eta oraindik ez da abiarazi. Nolanahi ere, Europar Batasunak parte-hartze kulturalari buruzko estatistikak estatu mailan abiarazteko erreferentzia gisa erabiltzea gomendatzen du.



Bestalde, UISk (UNESCOren Estatistika Institutua) txosten bat eskatu zuen 2006an, EBren eredia (EuroBarometroa) garapen-bidean dauden herrialdeen jardura kulturalen testuinguruan ezartzeko, eta hiru kategoriaren arabera definitu zituen praktika kulturalak: oinarria etxean dutenak, oinarria etxetik kanpo dutenak, eta nortasuna indartzeko direnak.

Aztertutako ereduetatik ondoriozta daitekeenez, bada, kontsumo eta parte-hartze kulturalaren analisi estatistikoak erronkak mahaigaineratzen baditu ere eta erronkoi erantzun egin behar bazaie ere, egungo testuingurura egokitzea konplexua da eta planteamendu berritzaileak eskatzen ditu.

2.3. IKTen eragina

Benetan zaila da IKTen garapena kulturaren sektorean zer eragin izaten ari den neurtzea, kultura ekoizteko, hedatzeko eta erabiltzeko ereduetan izaten ari den inpaktuagatik. Zerbitzuak bateratu egiten dira, eta mundu fisikotik mundu digitalera igaro; hartara, edozer gailutatik eskura daitezke mundu osoan. Eduki kulturalen banaketan agente berriak sartu dira, eta eszenatoki berri bat sortzen ari da, baina oraindik ez daude definituta ez edukiak ustiatzeko ereduak, ez diru-sarreraren banaketa. Bestalde, erabiltzaileek modu berriak dituzte horiek erabiltzeko: berehala erabil daitezke, erabiltzeko errazak dira, elkarreragileak dira eta nonahi daude. Gainera, kontsumitzeko eredu berriak ugaritzen ari dira; tartean, *streaminga*.

Baina iraultza birtual horrek batera bizi behar du fisikoarekin eta analogikoarekin. Erabiltzaileek betiko zerbitzuak eskatzen dituzte oraindik, eta horiek ingurune digitalaren aukerek dakartzaten erabilera berriei batera bizi behar dute. Hibridazio horrek baliabide eta ahaleginak bikoizten ditu, eta zerbitzu publikoei zein industria kulturaleri eragiten die –produktu fisikoari esker mantentzen dira oraindik–.

Aldaketok datuak neurtzeko eta biltzeko metodoei ere eragiten diete. Metodook, bada, zertxobait zaharkituta daude, errealitate digitalaren jarraipena egiteko gaitasunari dagokionez, baina negozio analogikoen egoeraren berri ematen

jarraitu behar dute. Neurtzeko eta ikertzeko tresnen ikuspegitik, parte-hartzeak sortzen ditu erronka metodologiko gehien. Teknologia berriak agertzearekin eta azkar hedatzearekin batera, are gehiago aberastu dira jarduteko, elkarri eragiteko eta mundu birtualean parte hartzeko moduak. Industriaren ikuspegitik, ereduen bizikidetzaz hitz egiten den bezala, Internetek, sare sozialek eta bestelako teknologiek ez dute parte-hartze kulturala ordezkatzeko, hori areagotzen baizik. Eduki kulturalak eskuratzeko, bilatzeko eta erabiltzeko aukerak ugaritzen dituzte, baita praktika pertsonalizatuak egiteko aukera eman ere (denborari eta espazioari dagokienez).

Ondorioz, errealitatea ezagutzeko, eredu estatistiko «klasikoetara» jo beharra dago oraindik ere; hots, balio-kateari egokitutako arlo eta funtzioen egiturara. Baina, aldi berean, egitura hori nolabait baliogabetuta gelditzen da eremu digitalean, mugak eta konpartimentuak hausten baititu. Irtenbidea hau da: batetik, eredu eta metodologia estatistiko estandarizatuak eta, bestetik, teknologia berriak ekartzen ari diren aldaketetan sakonduko duten berriarazko begirada kualitatiboak konbinatzea.

2.4. Eraginkortasuna bilatzea

Informazio estatistikoko sistema bat planteatzeak eraginkortasuna bilatzea dakar, erantzukizunari eta errealismoari zor, bai eta informazio-sistema ezin hobe sortzearen eta dagoena aprobetxatzearen arteko orekari eustea ere. Informazio-sistema bideragarri eta, aldi berean, anbiziotsu bat sortzeko eta finkatzeko, erreferentziako beste erakunde estatistiko batzuekin –esaterako, aztertutakoekin– homologa daitekeen esparru kontzeptual bat eduki beharra dago. Programa estatistiko bilakatuko den esparru bat.

Estatistiken eraginkortasunari buruz hausnartzean, lehenik eta behin eragiketen errolden eta laginen zabaltasunari buruz galdetu behar diogu geure buruari, baita aldizkakotasunari buruz ere. Zerk ematen du informazio gehiago, errolda-operatibo handi batek edo sektorearen joerak ordezkatzeko dituzten agente esanguratsuen sorta batek? Noiz erabili behar da metodologia bat edo beste? Nola egonkortu daitezke serieak parametro eraginkorragoekin? Zer aldizkakotasun da egokiena?



Formula bideragarrietako bat planteamendu ezberdinak konbinatzean datza: serie estatistikoak finkatzea (eta, beharrezkoa bada, banantzea) eta bilakaerari eta joerei buruzko informazioa ematen duten beste tresna batzuekin osatzea. Metodori egokiena hautatu eta lehenesteko, informazio-beharrei eta uneko baliabide-zuzkidurari erreparatzea da kontua.

Akats bat egin ohi da; hots, ahalik eta informazio gehien eduki nahi izatea, hori denboran zehar lortzeko bideragarritasun praktikoa aztertu gabe, are gehiago eragiketa guztietarako informatzaile berak erabiliko dituzten errolda-azterlanak direnean. Ahaleginak egin behar dira errealitate jakin bat ezagutzeko gutxienez zer behar den pentsatzeko, ez dena jakiten saiatu. Edo, beste era batera esanda, galdetegi motz eta soilak egin behar dira, erraz betetzeko modukoak, eta, ondoren, datuak konbinatu behar dira, adierazle onak lortzeko. Ez dugu ahaztu behar kulturaren sektoreak ez duela tradizioz datuen kudeaketan; beraz, kontuz jokatu behar dugu zenbait informazio eskatzeko garaian.

Horren ondorioz, informazioa eraginkortasunez tratatu ahal izango da, baldin eta ahalik eta gehien baliatzen badira uneko erregistro eta datu-baseak. Horren adierazgarri open data izeneko joera da; alegia, administrazioek eta sektore publikoko erakundeek egiten edo gordetzen duten informazioa jendearen esku jartzea, berrerrabil dezan. Kasu honetan, pribatutasun-, segurtasun- eta jabetza-murrizketarik ez dutenak dira datu publikoak. Hain zuzen, datuen babesari buruzko legeetan aurki daitezke ikerketarako interesgarriak badira ere murrizketak dituzten zenbait informazio erabiltzeko oztopoak.

Azkenik, estatistikak egiten dituzten erakundeekin lankidetzan aritzea funtsezkoa da, baldin eta eraginkortasuna lortu nahi bada.

2.5. Testuinguruari egokitutako ezagutza

Behatokiak hastapenetik izan duen ardura nagusietako bat egiten duen lanaren bitartez ezagutza sortzea eta balioa ematea izan da. Hala, lehen etapan, informazio estatistikoa lehenetsi zuen eremu horretan inolako tradizioz ez zuen sektore batean. Beharrezkoa eta premiazkoa zen, beste sektore batzuekin homologatzeko, zehatz-mehatz ezagutzeko, eta datuak eskaini ahal izateko, bai publikoari, bai sektoreari berari. Eremu estatistikoa, ahaleginak egin dira analisisen txostenek eta erabilitako metodologiak irakurketa zainduak eta sakonak emateko. Hona hemen bi adibide: batetik, gastu publikoaren datuekin egiten den finkatze-prozesua eta, bestetik, Ikuspegiak txostena eta arteen eta industria kulturalen estatistiketatik ateratzen diren kulturaren oinarriko adierazleak.

Finkatu ondoren, KEBek kulturaren sektorerako esperitalagoak diren tresnen lan-ildo bati ekin dio. Egoeraren arabera informazioa behar zen, testuinguruan bizitzen ari diren aldaketen joerak aurreratzeko eta aldaketok azaltzeko hipotesiak adierazteko. Hori dela eta, luzetarako bi panel abiarazi ziren: sektorean ordura arte aplikatu ez ziren teknika berritzaileak, hain zuzen.

Ezagutzarekin soilik konformatu ez, eta, orain dela urte batzuk, metodologia kualitatiboak behar zituzten gaiak ere aztertzen hasi zen. Eta zeharkako gaiak ere aztertu ditu sakon; esaterako, hauek: kontsumoa, sorkuntza eta sare kulturalak, ingurune digitala, gizarte-itzulera, finantzaketa eta politika publikoak. Edukiak erabakitzeko, nazioarteko joera eta eztabaidak, sektorearen erronkak eta euskal kulturaren errealitatearen beharrak hartzen dira kontuan.

Azterlan kualitatibo horiek ez dira deskribatzera mugatzen, baina; aitzitik, nazioarteko ikerketen analisiak eta jardunbide egokiak biltzen dituzte, bai eta sektoreari erabilgarri gerta dakizkiokeen orientabide edo gomendioak ere.



3. **KEBren** esparru estatistikoaren balantzea

Esparru estatistikoa diseinatzea izan da Behatokiaren ekintzaren muina 2006tik hona martxan jarri zenetik. Esparru estatistiko sendoa garatu ahal izateko, aurrez, bi txosten egin ziren: nazioarteko egoera aztertzea, bata; eta Euskadiko egoera aztertzea, bestea. Hori horrela, alde batetik, UNESCOren eta Europar Batasunaren (Eurostat) informazio-sistemen ezaugarriak eta Quebecko, Frantziako, Espainiako eta Kataluniako esperientziak aztertu ziren eta, bestetik, Euskadin zegoen kulturari buruzko informazio estatistikoa. Bi informazio horiek hartu ziren erreferentziatzat Euskadirako esparru estatistikoaren lehen proposamena osatzeko.

Behatokiaren orain arteko jarduera-eremua kulturaren arlo tradizionalan zentratu da: ondare kulturala, sorkuntza eta adierazpen artistikoa, zeharkako industria eta esparruak, ondorengo ereduari jarraikiz.



Kultura Behatzeko Eremua

Eremu Erregulatzaileria			Eremu Produktiboa				
Prestakuntza Ikerketa	Antolamendu Publikoa	Antolamendu Pribatua	Sektoreak Eta Azpisektoreak		Eskaintza Sorkuntza Ekoizpena Hedapena/erakusketa	Produktua	Eskaera/ Erabiltzailea
Trebakuntza-eskaintza (kopurua eta Ezaugarriak) Tretatuak eta egresatuak	Gastu publikoa Politika publikoen diseinua, kudeaketa eta eragina	Egun dauden egiturak: kopurua, kideak Baliabide Metatuak	Ondarea	Museoak Artxiboak Liburutegiak Ondare-ondasunak	Fisikoa Enpresak Etablezimenduak Langileak Azpiegiturak	Fisikoa Kopurua Ezaugarriak	Fisikoa Ohitura kulturalak Ekipamendua Praktika kulturalak
			Adierazpen artistikoa	Arte eszenikoak eta musikalak Antzerkia Musika Dantza Ahozko tradizioa			
			Kultura-industria	Ikus-entzunezkoen industria (zinema eta bideoa) eta Multimedia Liburu-industria (liburua) Fonografia-industria Artisau-industria	Ekonomikoa Egindako jarduera Mugiarazitako baliabideak	Ekonomikoa Salmentak	Ekonomikoa Kulturako gastua
			Hedabideak	Irrati-telebista Aldizkako argitalpenak			
Hezkuntza arautua Hezkuntza ez arautua Ikerketa ..	Administrazioa: Europa Autonomia-Erkidegokoa Forala Tokikoa	Sektoreko elkarrekin Eskubideen kudeaketa	Beste jarduera batzuk	Sormenezko beste jarduera batzuk Arkitektura Diseinua Publizitatea Jarduera eta produktu osagarriak Arte grafikoak Musika-tresnak Soinu- eta irudi-euskarri eta -gailuak Turismo kulturala			

Euskara – Kultura digitala: (Hizkuntzaren eta teknologiaren zeharkako ikuspegia)

Lurralde-Eremua

Egindako eragiketa estatistikoak eta azterlanak



KEBk eragiketa estatistiko hauek egin ditu sortu zenetik:

Eragiketa Propioak	Urtea									
	07	08	09	10	11	12	13	14	15	
Arteei eta kultura-industriari buruzko estatistika										
Kultura-ohituren, -praktiken eta -kontsumoen estatistika										
Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren estatistika										
Artxiboen estatistika										
Bigarren Mailako Iturriekin Egindako Eragiketak	07	08	09	10	11	12	13	14	15	
EAEko kultura-arloko enpresen eta enpleguen analisia										
Familia-gastua, informazioaren gizartea eta gastua, eta irakaskuntzaren finantzaketa										

Bestalde, KEBk zenbait txosten kualitatibo egin ditu azken urteetan. Intereseko zeharkako gaiari buruzkoak dira txostenok, eta horien bitartez sakonago aztertu ahal izan dira euskal kulturaren errealitatea, nazioarteko joera berriak eta sektoreak zein administrazio publikoek aurrez aurre dituzten erronkak. Publikoari eta hurbilpen-politikei buruz egindako azkenekoez gain, hona hemen osatu diren txosten kualitatiboetako batzuk:

■ **Sorkuntza eta sareak:**

- Kultura- eta sormen-industriak (2013).
- Sareko sorkuntza eta kultura-sareak (2012).

- Sorkuntza-fabrikeri buruzko azterketa (2010).
- Sorkuntzari laguntzeko politikei buruzko azterketa (2010).

■ **Finantzazioa:**

- Ukiezinen balorazioa, kultur agenteekin eginiko finantza eragiketetan (2012).
- BEZaren eragina arte eszenikoetan, musikan eta zineman (2014).

■ **Kudeaketa publikoa:**

- Kultura-enpresentzako laguntza publikoa (2014).
- Kultura-industriari nazioartekotzeko ereduak (2013).
- Kultura-ekipamenduen esternalizazioa eta kogestiorako ereduak (I) (2012).
- Kultur gestio publikoan arrazionalizazio- eta lehentasun-irizpideak aztertzeko ereduak (2012).
- Kultura-diplomaziari buruzko azterketa (2010).

■ **Ingurune digitala:**

- Kultura eta digitalizazioa. Egoera-mapa (2011).

■ **Kontsumoa-gazteria:**

- Kultura-kontsumoa sustatzeko politikak (2013).
- Gazteen kultura-kontsumoa (2012).
- Gazteak, kultura eta teknologia berriak (2010).

■ **Gizarte-itzulera:**

- Kulturako laguntza publikoaren gizarte- itzuleraren ebaluazioa (2012).

Jarraian, egindako lanaren balantzea egin da, bost ikuspegitatik: eredu estatistikoa, programa estatistikoa, azterlan kualitatiboak, uneko testuingurua eta argitalpenen politika.



Esparru estatistikoari dagokionez:

- Esparru estatistikoak den-dena barneratzea zen hasierako asmoa, eta hala diseinatu zen. Eredu kontzeptuala, bada, anbizio handikoa zen, baina, agian, esparru errealista bat izateko konplexuegia, kontuan izanik ez dugula informazio historiko erregularrik kulturaren eremuan. Ondoren, eragiketa- eta baliabide-aukerak zeudenez, estatistika erregularren aldizkakotasuna handitu zen.

Hasierako diseinuaren egite-mailaren balantzea eta European zehaztutako zuzentarau berriak aintzat hartuz gero, hasierako esparru estatistikoaren diseinua berrikusi beharra dago. Gainera, esperientzia bildu dugu azken urteetan, dela estatistikekin lotutako eragiketa-gaiei dagokionez, dela kulturaren eremuari buruzko ezagutza sakonari dagokionez. Hori horrela, zenbait gai baztertu egin ditugu, ez direlako bideragarriak izan. Aldiz, beste gai batzuk zabaldu egin ditugu, eta tresna berriak aztertzen ari gara. Osatzen, egokitzen eta birformulatzen ari da lana, testuinguruaren aldaketen arabera. Eta urte hauetan oso aldaketa garrantzitsuak gertatu dira; arlo digitalaren hedapena eta krisi ekonomikoa, kasu.

Hasierako programa estatistikoari dagokionez:

- Hasierako ziklo estatistikoa eragiketa estatistiko «klasikoen» sorta handi bat egitean zetzan.
- Eragiketak urtean behin egitea erabaki zen, baina praktikan frogatu da ez dela bideragarria.
- Sektoreko estatistiketan, industria eta sektore kultural klasikoak aztertu dira.
- Intereseko zenbait eremu ez dira sistematikoki jorratu, ahaleginak ahalegin: hedabideak eta artisautza. Euskararen eta bertsoaritzaren eremua Hizkuntza Politikarekin koordinatu da.

- Ondareari buruzko estatistikei helduta, Behatokiak ondaretik sortzen diren estatistikak balioztatzen ditu; batera eginiko eragiketak aldian aldikoak dira.

- Zeharkako estatistiketan, kulturako ohiturak, praktikak eta kontsumoa eta gastu publikoa jorratu dira. Aurrekontu-arrazoien arabera ohituren estatistikak (bost urtez behin) egitea aurreikusten zen hasieran, baina ezin izan da.

- Arteen eta kultura-industriaren, eta finantzaketaren eta gastua publikoaren estatistikak finkatuta daude. Errolda-estatistikak dira eta bi urtez behin egiten dira.

- Enpresak eta enpleguak aztertzeke, bigarren mailako iturriak erabili dira. Lankidetzabide bat dago Eustatekin, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Lanbiderekin.

- Ildo horretatik, familia-gastuari, informazioaren gizarteari eta hezkuntzako estatistikei buruzko informazioa eskatu zitzaion Eustati.

Azterlan kualitatiboei dagokionez:

- Azterlan kualitatiboen artean, bereizi egin behar dira, batetik, esplorazio-izaera dutenak eta, bestetik, berezko izaera dutenak. Lehenak arlo baten ezagutzan, zeharkako dimentsio batean edo balio-katean sakontzeko dira, eta etorkizuneko estatistiketarako oinarria prestatzeko balio dute. Bigarrenek, aldiz, gai bat sakon ezagutzeko eta, gehienetan, gomendioak proposatzeko balio dute.

- Txosten kualitatiboak abiapuntu hartuta, kulturaren eta kultura-politiken zeharkako alderdiak (publikoak, kulturaren kontsumoa, laguntza-politikak, gizarte-itzulera, hurbiltasuna, ukiezinen balorazioa) eta errealtate kulturalaren analisisan gero eta gehiago ikusten diren eremu berriak (sormen-industriak, digitalizazioa, teknologia berriak eta abar) jorratu dira nagusiki.



Uneko testuinguruari dagokionez:

- Hauek izan dira, urte hauetan, kulturaren errealitatea behatzerakoan eragin handiena izan duten testuinguruko elementuak: krisi ekonomikoa eta horren ondorioak, eta IKTen eragina kultura-erabileretan eta -kontsumoetan.
- Aldaketa sozialak eta ekonomikoak azkartzen ari direnez, dinamika horiek islatzeko aukera emango duten tresnak erabili behar dira. Hori dela eta, 2013az geroztik, panelak diseinatu eta ezarri ditu KEBk, dela sektoreen eremuan, dela ohitura kulturalen eremuan.

Hedapenaren eta argitalpenen politikari dagokionez:

- KEBk ahalik eta xehetasun handienarekin argitaratzen ditu azterketak. Hainbat bidetatik egiten du hori: azterlanen eta estatistiken bilduma, adierazleak dinamikoki kontsultatzeko tresna eta beste argitalpen batzuk.
- Emaitzak hedatzeko ildoaren indarguneetako bat informazio-iturriei txosten pertsonalizatuak bidaltzea izan da. Bide horri jarraitu zaio, bada, bai finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistikaren kasuan, bai enpresa-konfiantzaren adierazleen panel berrian (arteak eta kultura-industriak).
- KEBren argitalpenetako bat Kultura Urtekaria da. Behatokiaren argitalpen nagusia izan nahi zuen hasiera batean, baina argitaratzen joan diren txosten estatistiko eta kualitatiboek hasierako helburu hori itxuragabetu egin dute hein batean. Horren erabilgarritasuna birplanteatu beharra dago, eta errealitate berriarekin bat datorren eredu bat proposatu.
- KEBren argitalpenak oso sakonak direnez eta informazio ugari biltzen dutenez, eta, gainera, sektoreak datuak baliatzeko ohiturarik ez duenez, argitalpenen politika birplanteatu beharra dago. Hala, sektoreak argitalpen «arinagoak» egitea iradokitzen du; eta adituek, berriz, datu estatistikoetan oinarritutako interpretazio-analisiak egitea.



4. **KEBen** esparru eta ziklo estatistiko berria



4.1. Informazio-sistemaren betekizunak

Jarraitutasuna eta egonkortasuna. Estatistikek egonkorak izan behar dute denboran. Datuen denbora-serieak finkatzearekin bakarrik posible da bilakaerak eta joerak aztertzea. Horretarako, baina, oinarri sendoak zehaztu behar dira. Bestela, irizpideak aldakorrak izango dira eta serieak ezinezkoak. Hortik abiatuta, bada, posible da haztea: sektoreei dagokienez (sektore tradizionalatik kultura-eta sormen-industrietara), informazio-denborari dagokionez (datuetatik adierazleetara) eta ikerketen eta analisisien izaerari dagokionez (informaziotik ezagutzara). Behatokiaren kasuan, bi urtez behingo bi estatistikei eutsi beharra dago: arteak eta kultura-industriak, eta finantzaketa eta gastu publikoa. Horien serieen hiru eta lau edizio egin dira, hurrenez hurren.

Berrikuntza. Adierazi bezala, aztertu beharreko errealtatea dinamikoa da; errealtatea irudikatzen erabiliko diren tresnek, beraz, aldaketok islatzeko gai izan behar dute. Hortaz, metodologia berritzaileak txertatu behar dira, uneko testuingurua definitzen duen konplexutasunaren berri eman dezaten zorroztasunez. Hala, esate baterako, luzetarako bi panel jarri ditu martxan orain dela gutxi Behatokiak: arteen eta kultura-industrien enpresen konfiantza ezagutzeko, bata; eta kultura-ohiturak aztertzeko, bestea. Azterlan aitzindariak dira, eta kultura aztertzeko eta ezagutzeko metodo berritzaileak sartzeko apustu garbia egiten dute. Baina, tresna estatistiko berritzaileez gain, Behatokiak gai berritzaileak aztertzen ditu metodologia kualitatiboan bitartez. Hori horrela, sorkuntza eta sareak aztertu dira, bai eta gizarte-itzulera ere, eta finantza-tresnak eta programak ebaluatzeko eredu bat.

Koordinazioa. Informazio estatistikoa sortzeko funtsezko betekizunetako bat erakundeen eta kulturako agenteen arteko koordinazio-bideak zehaztea da. Betiere, helburu bikoitzarekin: lanerako metodologiak eta edukiak adostea eta beste agente batzuk egiten ari diren lanak inola ere ez bikoiztea. Ildo horretatik, Behatokiak lau lankidetzak ditu. Lehenik, jarraipen-batzordea; foru-aldundietan eta unibertsitateetan ordezkatuta dagoen organo horretan urteko programa

aurkezten, alderatzen eta baliozkotzen da, edukiak eta metodologiak barne. Bigarrenik, estatistiken diseinua sektoreekin alderatzen da hasieratik, bideragarria den ikusteko eta iradokizunak biltzeko. Hirugarrenik, lan-bide bat dago sektoreekin, beren azterlan-proposamenak ezagutzeko; hartara, bikoiztasunak saihesteaz gain, proposamenok gauzatzeko orientabideak ematen zaizkie. Laugarrenik, Eustatekin, Lanbiderekin eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin koordinatzen da, erakundeok kudeatzen dituzten informazio-iturriak aprobetxatzeko.

Aitorpena. Edozein behatokiaren erronketako bat ezagutza sortzeko erreferente nagusia izatea da. Hori horrela izanik, KEBk lankidetzak-esparru bat ireki zuen hasieratik nazioarteko beste erakunde batzuekin, eta, horren ondorio izan dira jardunaldiak eta eztabaidarako espazioak, bai eta batera egindako ikerketak ere. Lan egiteko formula hori suspertu beharra dago, lana eta ezagutza partekatuz. Baina, kanpora begiratzeaz gain, Behatokiak eztabaida- eta hausnarketa-espazioak ireki nahi ditu sektorearekin, unibertsitate eta ikerketa-zentroekin, eta gizartea azterteaz eta behatzeaz arduratzen diren beste erakunde batzuekin. Analisia- eta ikerketa-zentro gisa duen aitorpena indartzen lagunduko du bide horrek, zalantzarik gabe.

Zorroztasuna. Kulturaren eremuari buruzko informazioa sortzeko eta tratatzeko erakunde erreferente izateko ezinbestekoa da kulturaren arloan informazioa sortzeko jarraibideak ematen dituzten erreferentziako erakundeak aztertea eta horiek bermatutako teknika eta tresna estatistikoak aplikatzea. Premisa hori abiapuntu hartuta, sortzen den informazioa alderatu eta homologatu ahal izango da. Ezaugarri hori egin beharreko azterlanen diseinu metodologikoan oinarritzen da: aplikatuko diren definizioak, galdetegien diseinua, aztertzeko aldagaiak, datuak eta ondoriozko adierazleak aztertzeko teknikak. Tresna, adierazle eta interpretazio berriak diseinatuzko esploraziozko ikerketa kualitatiboak ere sendotasuna eta zorroztasuna indartzen ditu.

Informazio eguneratua. Informazio estatistikoa kudeatzeko denbora behar da, baina denbora hori ahalik eta gehien murrizteko protokoloak eta zirkuituak sortu behar dira. Behatokia ohartuta dago lan estatistikoaren berezko handicap horrekin, eta, informazioa nahiko azkar eduki ahal izateko mekanismoak hobetzeaz gainera, bi panel abiarazi ditu. Tresna malguak dira, eta egoeraren arabera informazioa erregulartasunez eta eguneratuta izateko aukera ematen dute.




Hartara, sektoreari informazio berria ematen zaio, hori eskatzen baitu, eta galdeketek ematen duten informazio xehatu eta zehatza osatzen da. Panelez gain, bada beste biderik: eragiketa handietatik, paneletatik edo aldizkako azterlanetatik ateratako mikrodatuak balioztatzea, formatu malgu/motzetan eta interesgarrietan, testuinguruaren arabera zenbait momentutan.

4.2. Kontzeptuen egitura

Informazio-sistemaren kontzeptuen egiturak, ezagutza osoaren bokazioa duenez, kulturaren sektore tradizionalak eta kultura- eta sormen-industriak, balio-katearen funtzioak –sorkuntzatik erregulaziora– eta ekonomiari, enpleguari, finantzaketari, kontsumoari eta abarri buruzko zeharkako dimentsioak barne hartu behar ditu. Ardatz horiek hiru sarrerako matrizea marrazten dute:

2. irudia:
Informazio-sistemaren kontzeptuen matrizea.



Aztertutako esparru estatistiko ezberdinetan ikusi ahal izan denez, erakunde edo agentzia bakoitzak bere egitura zehazten du, bere lehentasun eta politiken arabera. Kasu honetan, Europako ESSnet-Culturek proposatutako ereduari jarraituko diogu, lurralde-maila txikiagoko ereduak erreferentetzat erabiltzen dutena baita. Arlotan (sektoreak), balio-katearen funtzioetan eta zeharkako dimentsioetan egituratuta dago.

■ **Arlo kulturalak:** aitortutako adierazpen artistiko batzuen inguruan zentratutako praktika, jarduera edo produktu kulturalen sorta da. Izen horrekin ezagutzen dira sektore kulturalak.

■ **Funtzioak:** Estatistika kulturaletarako ESSnet-Culture sarearen esparru orokorrerako erabiltzen diren funtzioak hartu dira nagusiki aintzat, dela jarduera kulturalak zehazteko, dela horien eta egungo sailkapen ekonomiko eta estatistikoen arteko elkarrekotasunak zehazteko. Maila sekuentziatuak dira (sorkuntzatik hedapenera, prestakuntza- edo babes-funtzioekin batera). Ikuspuntu ekonomiko eta praktikoari jarraitzen diote, bai eta datuak sortzeko azken helburuari ere. Aldaketa teknologikoen ondorioz, lehen hirurak (sorkuntza, ekoizpena eta hedapena) ez daude ezinbestean berezita; aitzitik, bata bestearen gainean jarrita daude.

■ **Dimentsioak:** berriazko ikuspuntu bat, kulturaren zeharkako begirada bat: ekonomia, enplegua, kontsumoa, finantzaketa, praktika eta parte-hartze soziala. Dimentsioak hainbat tresna erabiltzen dituzte, eta helburu ezberdinak dituzte; hortaz, modu berezian tratatu behar dira. ESSnet-Cultureren lantaldean aztergai izan ziren.

Garrantzitsua eta beharrezkoa da kulturak zer-nola funtzionatzen duen berriaz ezagutzea; hartara, behaketa-eremu bakoitzaren berriazkotasuna balioztatu ahal izango da, eta behar bezala zehaztu ahal izango dira interesguneak, funtsezko informazio-alderdiak, analisi-aldagaiak eta adierazle esanguratsuenak; horiek denak sektore bakoitzaren berezkoak. Zer aztertu behar den ezagutu eta definitu behar da, eta planteamendu hori abiapuntu hartu informazio-tresnak eta -gailuak behar bezala hautatu eta diseinatzeke.


3. irudia: ESSnet-Cultureren kontzeptuen egitura.

Arlo Kulturalak	Balio-katearen funtzioak	Zeharkako Dimentsioak
1. Ondarea: museoak, toki historikoak eta gune arkeologikoak	1. Sorkuntza	1. Ekonomia
2. Artxiboak	2. Produkzioa eta edizioa	2. Enplegua
3. Liburutegiak	3. Zabalkundea eta merkaturatzea	3. Kontsumoa
4. Liburuak eta prentsa	4. Babestea	4. Finantzaketa
5. Arte eszenikoak (zuzenekoak): musika, dantza, antzerkia, zirkoa, kabareta, zuzeneko beste ikuskizun batzuk	5. Hezkuntza	5. Praktikak eta parte-hartze soziala
6. Ikusizko arteak	6. Kudeaketa / erregulazioa	
7. Arkitektura		
8. Ikus-entzunezkoak eta multimedia: zinema, irratia, telebista, bideoa, soinu-grabazioak, multimedia		
9. Publizitatea		
10. Artisautza		



Eskema orokorrak edozer testuingurutarako balio du; nolahi ere, kontuan hartu behar dira bereak dituen berariazkotasun eta berezitasunak; hain zuzen, Behatokiak begirada gehigarriekin sartzen dituenak deskribatutako ardatz nagusietan. Euskara eta bertsoalaritza, kasu, gai garrantzitsuak dira Behatokiarentzat.

Azterlan kualitatiboan kasuan, beste osagai batzuk gehitu behar dira intereseko ikerketa-gaiak antzeman ahal izateko. Balio-kateaz gain, aintzat hartzen dira sektorearen eztabaida eta joerak, eta kulturaren sektorean ere eragina duten testuinguru sozioekonomikoaren elementuak.



Behatokiarentzako interes handiko lan-ikuspegiak irekitzen dituzte gai hauek; besteak beste: gobernantza eta arlo komuna; ingurune digitala; emakumeak kulturaren duen egoera eta bestelako gizarte-gai batzuk; eta ekonomiarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten gaiak, tartean eragina eta jasangarritasuna.

4.3. Informazio-sistemaren tresnak

Kulturako informazio estatistikoko sistema osatzen duten kontzeptuak abiapuntu hartuta, alderdi teknikoak eta metodologikoak diseinatu beharra dago. Bestela esanda, zer erabaki ondoren, nolahi heldu behar zaio.

Lehen adierazitako heterogenotasun eta berezitasun horiek tarteko, konbinatu egin behar dira planteamendu eta erritmoak; errealitate bakoitzari egokitutako informazioa biltzeko metodologia eta formulak (alderdi artistiko eta sortzailatik alderdi industrialera); erakunde hainbat ezaugarri (enpresa pribatuetatik erakunde publikoetara; ekoizpen-eremuetatik ingurune amateurretara; saltoki fisikoetatik online banaketa-bideetara).

Hori horrela izanik, honako hauek osatzen dute informazio-sistema:

Eragiketa estatistikoak: kultura estatistikaren aldetik kudeatzeak definizioak, irizpideak, galdetegiak, informazioa biltzeko bideak, esploratzeko mekanismoak eta abar birplanteatzea eskatzen du. Behatokiaren kasuan, bi errola-estatistika finkatuei (arteak eta industriak, eta finantzaketa eta gastu publikoa) enpresa-konfiantzaren eta ohituren gaineko luzetarako bi panelak gehitu behar zaizkie ziklo estatistiko berri honetan.

■ **Arteen eta kultura-industrien estatistika.** Bi urtez behin egiten da; 2007an hasi zen, eta 2009an birformulatu. Harrezkero, arte eszenikoaren eta ikusizkoen, zuzeneko musikaren, liburuaren, diskoaren eta ikus-entzunezkoen sektoreak aztertzen dira. Hiru arreta-puntu ditu: ekoizpena (arte eszenikoak eta ikusizkoak, liburuak, diskoak eta ikus-entzunezkoak), erakusketa edo programazioa (arte eszenikoak eta ikusizkoak, eta musika) eta merkataritza (liburu-dendak eta diskoen salmenta). Azken edizioak 2013. urteari buruzko emaitzak aurkezten ditu.

■ **Finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika:** Bi urtez behin egiten da, eta 2008an hasi zen. Erakundeekin laginak, bildutako informazioaren xehetasun-mailak eta datuak garbitzeko erabiltzen den kontsolidazio-prozesuak EAEko kultura-politikak aztertzeko ezinbesteko informazio-iturri bihurtzen dute ikerlan hau. Azken edizioan, 2012. urteko aurrekontuan aztertu ziren.



■ **Enpresa-konfiantzaren adierazleen panela.** Bi saio egin dira 2015ean: batetik, 2014ko bigarren seiheleko egoera eta 2015eko lehen seiheleko itxaropenak (martxo-apirila) eta, bestetik, 2014ko lehen seiheleko egoera eta 2015eko bigarren seiheleko itxaropenak (uztaila-iraila).

■ **Kultura-ohituren panela.** 2015ean azterlanaren diseinua eta alderaketa amaitu da. Gainera, paneleko kideak hautatzen ari dira, informazioa biltzeko urte amaieran. Aurrerantzean, urtean bitan bilduko da informazioa.

Administrazio-erregistroak ustiatzeko mekanismoak: uneko informazioak optimizatzeko dira (direktorioak, erregistroak...); horietatik hautatzen dira, bada, kulturarekin erlazionaturako jarduerak, sektoreak eta lanbideak. Jarduera ekonomikoen direktorioa eta Lanbideren erregistroa; horra hor Behatokiak enpresei eta enpleguei buruzko analisiak egiteko baliatzen dituenetako bi.

■ **Kultura-arloko enpresen eta enpleguen analisisia.** Estudio iniciado en 2010 (con datos del año 2008), a partir de explotaciones específicas del DIRAE del Eustat y de Lanbide. En 2015 se ha solicitado la información correspondiente a los ejercicios 2013 y 2014, para dar continuidad a las series temporales.

■ **Familia-gastuaren, informazioaren gizartearen eta irakaskuntzaren estatistikak.** Kasu honetan, 2013an Eustat-ek kudeatzen dituen bigarren mailako iturrien zenbait informazio argitaratu ziren lehen aldiz. 2015ean berriro eskatu da berriaz ustiatu ahal izatea, serieak 2013ko, 2014ko eta 2015eko informazioarekin eguneratzeko.

Kodeak eta sailkapenak: Administrazio erregistroak ustiatzeko eta bigarren mailako iturriak erabiltzeko, beharrezkoa da jarduera ekonomikoen (JESN kodea) eta lanbideen (LES kodeak) analisi- eta sailkapen-kategoriak aztertzea, eta kulturaltzat jotzen direnak hautatzea. I. eranskinen, kulturako JESNak eta hautatutako kultura- eta sormen-industriak azaldu dira zehatz. Unera arte erabilitakoez gain, orain arte aintzat hartu ez direnak ere barneratu dira; esaterako, arkitektura, publizitatea, bideo-jokoak eta kultura-hezkuntza.

Deskribatutakoaren arabera, KEBren ziklo estatistiko berriak eragiketa hauek barneratzen ditu:

Eragiketa Propioak	Año de referencia					
	15	16	17	18	19	20
Arteen eta kultura-industrien estatistika						
Kulturako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika						
Luzetarako Panelak	15	16	17	18	19	20
	S1 S2	S1 S2	S1 S2	S1 S2	S1 S2	S1 S2
Enpresa-konfiantzako panela						
Kultura-ohituren panela						
Administrazio Erregistroak Ustiatzea	15	16	17	18	19	20
EAEko kultura-arloko enpresen eta enpleguen analisisia						
Familia-gastua, informazioaren gizarte eta irakaskuntza.						

Bestalde, ikerketa kualitatiboek, dela orain arte egin direnek, dela etorkizunean jorratuko direnek, metodologia konbinatuak behar dituzte (nazioarteko erreferenteen analisisia, kasu-azterketak, elkarrizketa sakonak, delphis), bai eta beste azterketa- eta ikerketa-erakunde batzuekin lankidetzan aritzea ere, bai tokikoekin, bai nazioartekoekin.



Eranskinak

I. Eranskina.

ARLOAK - JESNak

II. Eranskina.

KULTURA-LANBIDEAK - LES

I. Eranskina. ARLOAK - JESNak

ARLOAK	JESNak
Ondarea, artxiboak eta liburutegiak	910 Liburutegietako, artxiboetako eta museoetako jarduerak, eta beste kultura-jarduera batzuk
Liburuak eta prentsa	4761 Espezializatutako establezimenduetan liburuen txikizkako merkataritza
	4762 Espezializatutako establezimenduetan egunkarien eta papertegiko artikuluen txikizkako merkataritza
	581 Liburuen eta egunkarien argitalpena eta beste argitaratze-jarduera batzuk
	5819 Beste argitalpen-jarduera batzuk
	6391 Albiste-agentzien jarduerak
Ikusizko arteak	743 Itzulpengintza eta interpretazioko jarduerak
	7410 Diseinu espezializatuko jarduerak
	742 Argazkigintzako jarduerak
Arte eszenikoak eta musikalak	9003 Literatur sormena eta artistikoa
	9001 Arte eszenikoak
	9002 Arte eszenikoetako jarduera osagarriak
Ikus-entzunezkoak eta multimedia	9004 Areto eta ikuskizun kudeaketa
	4743 Espezializatutako establezimenduetan audio- eta bideo-tresneriaren txikizkako merkataritza
	4763 Espezializatutako establezimenduetan musika- eta bideo-grabazioen txikizkako merkataritza
	5821 Bideo-jokoen edizioa
	591 Zinematografiako, bideoko eta telebista-programetako jarduerak
	592 Soinua grabatzeko eta musika editatzeko jarduerak
	601 Irrati-difusioko jarduerak
602 Telebista-programazio eta -emanaldi jarduerak	
7722 Bideo-zinten eta diskoen alokairua	
Arkitektura	7111 Arkitekturako zerbitzu teknikoak
Publizitatea	7311 Publizitate-agentziak
Kulturari lotutako beste zerbitzu batzuk	7312 Hedabideak ordezkatzeko zerbitzuak
Kulturari lotutako jarduera industrialak	6399 Sailkatu gabeko beste informazio zerbitzu batzuk
	1811 Egunkariak inprimatzea
	1812 Inprimaketa eta arte grafiko arloko beste jarduera batzuk
	1813 Euskarrien aurreinprimatze- eta prestatze-zerbitzuak
	1814 Koadernaketa eta horrekin zerikusia duten zerbitzuak
	182 Grabatutako euskarrien erreprodukzioa
	264 Kontsumorako produktu elektronikoen fabrikazioa
	268 Euskarri magnetiko eta optikoen fabrikazioa
322 Musika-instrumentuen fabrikazioa	
Hezkuntza	8552 Kultura-hezkuntza



II. Eranskina. KULTURA-LANBIDEAK - LES

LES I I	Literala
1501	Jolas-, kultura- eta kirol-jardueretako enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak
1222	Publizitateko eta harreman publikoetako zuzendariak
2651	Publizitateko eta merkaturatzeko profesionalak
2451	Arkitektoak (paisaia-arkitektoak eta hirigileak izan ezik)
2452	Paisaia-arkitektoak
2481	Arkitekto teknikoak eta tekniko hirigileak
2482	Produktuen eta jantzien diseinatzaileak
2484	Multimediako diseinatzaileak eta grafikoak
2713	Analistak, programatzaileak eta web- eta multimedia-diseinatzaileak
2911	Artxibozainak eta museoetako kontserbatzaileak
2912	Liburuzainak, dokumentalistak eta antzekoak
2921	Idazleak
2922	Kazetariak
2923	Filologoak, interpretatzaileak eta itzultzaileak
2931	Arte plastikoetako eta ikusmen-arteetako artistak
2932	Konpositoreak, musikariak eta abeslariak
2933	Koreografoak eta dantzariak
2934	Zinema-zuzendariak, antzerki-zuzendariak eta antzekoak
2935	Aktoreak
2936	Irratiko eta telebistako esatariak eta bestelako aurkezleak
2937	Zezenketa-ikuskizunetako profesionalak
2939	Artista sortzaile eta interpretatzaileak, beste epigrafe batzuetan sailkatu gabeak



LES I I	Literala
3322	Osasun-dokumentazioko goi mailako teknikariak
3724	Jolas- eta entretenimendu-jardueretako monitoreak
3731	Argazkilariak
3733	Arte-galerietako, museoetako eta liburutegietako teknikariak
3739	Kultura eta arte jardueretan laguntzeko bestelako teknikariak eta profesionalak
3831	Ikus-entzunezko grabaketetako teknikariak
3832	Irrati-difusioko teknikariak
4210	Liburutegi eta artxibategietako langileak
7612	Luthierrak eta antzekoak; musika-tresnen afinatzaileak
7613	Bitxiginak, urreginak eta zilarginak
7614	Zeramikagintzako langileak, eltzegileak eta antzekoak
7615	Beiraren putz-egileak, moldeatzaileak, ijeztatzaileak, ebakitzzaileak eta leuntzaileak
7616	Errotulatzzaileak, beiraren grabatzaileak, hainbat gairen dekorazio-pintoreak
7617	Zura eta antzeko materialak lantzen dituzten artisauak; otarregileak, eskuilagileak eta antzekoak
7618	Ehuna, larrua eta antzeko materialak lantzen dituzten artisauak, zuntz-prestatzaileak eta ehuleak
7619	Beste epigrafe batzuetan sailkatu ez diren artisauak
7621	Aurreinprimaketa-prozesuetako langileak
7622	Inprimaketa-prozesuetako langileak
7623	Azaleztapen-prozesuetako langileak



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

nazioarteko eredu estatistiko berrien analisisia

eta Euskadiko ziklo estatistiko
kulturalaren proposamena



KEBren esparru
estatistikoaren berrikuspena

2016eko urtarrila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

diseinua eta maketazioa:

Diagonal | Comunicación 360º



nazioarteko eredu estatistiko berrien analisia

eta Euskadiko ziklo estatistiko
kulturalaren proposamena



KEBren esparru
estatistikoaren berrikuspena



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura